KULTURA 2.0
PRESTAKUNTZA KOADERNOAK

3

NOLA HOBETU GURE INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA WEB 2.0an: RSS FORMATU ESTANDARRA

2012ko MARTXOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

+c k+

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA CULTURA

NOLA HOBETU GURE INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA WEB 2.0AN: RSS FORMATU ESTANDARRA

Kultura 2.0 ekimenaren barruan, Kultura 2.0 - Prestakuntza Koadernoak bilduma prestatu eta hedatzen hasi da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn kultura sektorean ari diren enpresei (batik bat ETEei) eta profesionalei ezagutza, berrikuntza eta jokabide egokien berri emateko asmoz.

Kultura 2.0 deritzon horretan prestatzeko premia igarri dute enpresa eta profesional horiek, esparru horretako bilakaerari, tresna berriei, prestazioei eta zerbitzuei egokitzeko beharra. Eta, hain zuzen, eskaera horri erantzuteko prestatu dira koaderno hauek.

Premiak zein diren zehazteko prozesuan, EAEn kultura-sektorean ari diren eragileek parte-hartze aktiboa izan dute, lan-taldeen bidez. Hasierako diagnostiko hori osatu eta dinamikotasun handiago emateko, aurrerantzean iruzkinak eta proposamenak jasotzen jarraituko dugu, hurrengo aleetan lan litezkeen gai gehiago eskuratu ahal izateko.

Espero dugu ekimen honen bidez tresnak eta metodologia egokiak eskainiko dizkiegula kultura-jardueretan ari diren enpresa eta profesionalei, web 2.0aren garapenari moldatzeko aukera izan dezaten.

Hurrengo aleetarako gai-proposamenak

Zure ustez, Kultura 2.0ren inguruko zer beste gai aipa genitzake hurrengo prestakuntza-koadernoetan? (ahalik eta hobekien zehaztu)

Bidal iezaguzu zure iradokizuna honako e-mail honetara: kulturabehatokia@ej-gv.es

bilduma

Prestakuntza Koakernoak

1. Ikusgarritasuna 2.0 Sarean: Sarean Dugun Presentzia Hobetu eta Monitorizatzeko Jarraibideak - **2011ko Martxoa**
2. Eduki Digitalak Zabaltzeko eta Zaintzeko Formatuak - **2011ko Uztaila**
3. Nola hobetu gure informazioaren zabalkundea web 2.0An: RSS formatu estandarra - **Marzo 2012**

Prestakuntza Pilulak

1. Gizarte-hedabideetan arakatu eta monitorizatzeko tresnak - **2011**
2. OCR: irudietako karaktereen ezagutza optikorako teknologia - **2011**
3. Fitxategiak biltegiratzeko, transferitzeko eta konpartitzeko aplikazio praktikoak - **2011**
4. Berrikuntza teknologikoa eta artea musikarako aplikazio baliagarriak - **2011**
5. Facebooken egotea: pertsona indibidualentzako profilak eta erakundeentzako orriak - **2011**
6. Facebook pertsonalizatzeko aplikazioak - **2011**
7. Doako online aplikazioak

Aurkibidea

1. **AURKEZPENA** **4**

2. **ZER DA ETA ZERTARAKO BALIO DU RSSk?** **5**

3. **NOLA SOR DEZAKEGU RSSa GURE WEBGUNEAN? (EGILEARENTZAKO ORIENTABIDEAK)** **9**

4. **NOLA HARPIDETU RSS BATEAN (ERABILTZAILEARENTZAKO ORIENTABIDEAK)** **15**

kultura2.0

1. AURKEZPENA

Gaur egun, informazioaren arintasuna eta eskuragarritasuna funtsezko elementu bihurtu dira web 2.0aren esparruan eta, ondorioz, premia horrek gure webgunea edo bloga etengabe eguneratzera behartzen gaitu. Horrekin batera, baina, gure webguneetan alerta-sistemak txertatzeko beharra ere badugu, informazio hori albait lasterren iritsi dadin hartzaileengana.

Blogak eta gizarte-sareak sortu zirenean, Interneten informazioa aurkezteko eta transmititzeko modua goitik behera irauli zen. Erabat baztertu gabe, bigarren mailan geratu dira diseinuari lotutako alderdiak: garrantzitsuena, batez ere, egileak helarazi nahi duena helarazteko arintasuna eta elkarrekintza dira.

Horren harira hainbat eta hainbat zerbitzu, oso heterogeneoak, sortu dira sarean. Zerbitzu horiei esker, aktibatzeko eta kudeatzeko oso errazak diren komunikazio-sistema berriak agertu zaizkigu, eta hori egiteko ez dugu informatikako edo programazioko profesionalak izan beharrik.

Koaderno honen helburua RSS bidezko (sindikatzeko formatua) Sindikazioa edo Feeda aurkeztea da. Webgune edo blog bateko edukiak sindikatzen ditugunean, informazioa formatu zehatzetan sortzen dugu (RSS edo RDF, adibidez), beste orri batek informazio hori bistaratzeko moduan. Halatan, informazio hori partekatu eta beste webgune edo programa batzuetan erabiltzeko aukera emango digu.

Sindikatzeko RSS formatua erabiltzen ikasiko dugu, bi ikuspuntutatik:

— Egilearen profiletik, hau da, enpresa edo profesional batek bere webgunetik edo blogetik nola aktibatu behar duen, hortik aurrera egiten ditugun eguneratzeak gure harpidedunengana irits daitezen.

— Erabiltzailearen profiletik, jakiteko zer egin behar dugun gehien interesatzen zaizkigun webguneetan eta blogetan harpidetzeko, informazioa nahieran eta berehala jasotzeko moduan.

Egilearen profiletik, labur aipatuko ditugu web/blogeko edukiak garatu eta kudeatzeko programa batzuk (CMS, eduki-kudeatzaileak).

kultura2.0

2. ZER DA ETA ZERTARAKO BALIO DU RSSk?

Koadernoaren aurkezpenean esan dugun bezala, RSS (Really Simple Sindication, ingelesez) informazioa bidali eta hartzeko aplikazio soil eta erraz bat da. Agerikoa denez, guk geuk erabaki behar dugu aplikazio hori gure webgunean sartu ala ez, eta horregatik, beraren abantaila eta arazoetako batzuk zerrendatuko ditugu. RSSak eskaintzen digun aukeretako bat zera da: gure edukiak automatikoki bidaltzea gizarte-sareetara, twitterfeed o ifttt. edo antzeko plataformak erabiliz. Ikus dezagun hori, adibide baten bidez.

Kultura-alorreko profesional batek webgune batean aurkezten ditu lanak eta proiektuak. Gainera, bere jarduerak blog batean eguneratzen ditu.

Lehenengo eta behin esan behar dugu RSS gabe, profesional horren webgunea eta bloga eremu birtual estatiko hutsak izango direla, gure balizko erabiltzaileak (bezeroa, laguna) eguneratu dugun informazioaren berri jakin nahi badu, webgunera jotzera behartzen baitugu; hau da, informazioa ez da unean bertan hedatzen. Era berean, ez dago elkarrekintza zuzen eta jarraiturik bezeroarekin (gaur egungoarekin edo bezero bihur daitekeenarekin): gure eremura etorriko diren “zain” gaude.

Gaur egun, ezinbestekoa da kultura-sektoreko enpresek eta profesionalek sarean duten ikusgarritasuna handitzea eta formatu estandarrak erabiltzea (RSS, adibidez), horri esker, erraz eta kostu handirik gabe, ‘marketin’ hori erabili ahal izango dutelako. Horri esker, gaurkotasuna duten albiste eta informazio guztiak berehala eta automatikoki helarazi ahal dizkiogu gure bezeroei: gure kultura-agenda; erakusketen, antzerki- edo dantza-emanaldien programazioa; gure lanaren argazkiak; aurreko adibidean aipatu dugun profesionalaren kultura-proiektu berriak... Gainera, “sarean egote hutsez” informazioa eskaintzea baino harago, garrantzitsua da komunikatzen ditugun edukiak lantzea, gure erabiltzaileak/irakurleak leial egiteko.

Kontuan izan behar dugu, ordea, formatu estandar horiek erabiliz gero, gure jarduerei buruzko informazioa maizago eguneratu behar dugula eta, ondorioz, horretan denbora gehiago ematea eskatuko digula.

Zer da CMSa?


CMSa (ingelesezko Content Management System-en siglak) euskarri digital batean edukiak kudeatzeko eta, batez ere, gure webguneko edukiak kudeatzeko aukera ematen digun sistema bat da. Honelaxe labur ditzakegu sistema horren ezaugarriak:

— Webgune baten egileari/editoreari, era guztietako informazioa sortu, sailkatu eta argitaratzeko aukera eskaintzen dio.

— CMSak datu-base baten oinarrituta lan egiten du: egileak base hori eguneratu edota editatu baino ez du egin behar.

— Datu-orrietan oinarritutako interfazea du, eta nabigatzailearen bidez sar daiteke bertan. Datu-orri horietan, alta ematen zaie eduki berriei.

— Guk datuei alta eman diegun lekuan egongo da erabiltzaileak eskuratuko duen informazio eguneratua.





Bi ikuspuntu: Egilea eta Harpideduna

RSSa bi ikuspuntu desberdin baina osagarritatik aztertu behar da: edukia eta informazioa transmititzen duenaren ikuspegia, hau da, egilearena; eta gure webgunearen/blogaren hartzailearen/harpidedunaren ikuspegia (bezeroak, laguntzaileak, lagunak, etab.).

- **Egilea:** Edozein enpresak, profesionalek edo erabiltzaile partikularrek sor lezake web/blog bat, CMS editorea erabiliz. Izan ere, oso erraza da eta ia ez da behar programazio-alorreko ezagutzarik. Geroz eta jende gehiago dago gizarte-sareetan, euren webgunea/bloga "minutuan" komunikatu eta informatzeko asmoarekin txertatzen duena. Egileak ezarritako RSSak ez daude beti 'testuari' (albisteei...) lotuta; iruzkinak, irudiak, audio-fitxategiak (musika) eta abar ere esteka ditzakegu.

Gure gunea eguneratu bezain laster, gure webgunean/blogean sindikatu den harpidedunari horren abisua helduko zaio.

- **Erabiltzailea edo Harpideduna.** Asmoa zera da: gustatzen zaizkigun webgune/blogak eguneratzen direnean, berehala jasotzea horren berri, etengabe leku horietara jotzen ibili beharrik gabe. RSSak posta elektronikoz helduko zaizkigu, edota gure nabigatzaileak agertuko dira. Ohar horietara iristeko bi aukera horiek baditugu (nabigatzailea, posta elektronikoa), edozein euskarritan jaso ahalko ditugu eguneratzeak (mugikorrean, taulan, eramangarrian, etab.).

Oharrak bidaltzeko eta hartzeko prozesua RSSei esker gertatzen da, oso erraza delako webgune batean aplikazio hori ezartzea eta harpidedun bihurtzea (atalak, informazioa, etab. aukeratu ondoren). Plataforma batzuetan zerbitzu lehenetsitzat ere ezartzen dira gaur egun. Hau da, ez da XML kodearen programazioari buruzko inolako ezagutzarik behar.

kultura 2.0

3. NOLA SOR DEZAKEGU RSSA GURE WEBGUNEAN? (EGILEARENTZAKO ORIENTABIDEAK)

Fitxategi horiek automatikoki sor daitezke, adibidez blog-etan, tresna hori (widget) zuzenean sartzeko aukera eskaintzen digutelako, programaziora jo beharrik izan gabe. Informazio guztia gordeko duten fitxategiak sortzeko erabiltzen dira (gure webgunean edo blogean eguneratutako testu-zatiak) Hartara, RSSaren harpidedun egiten den pertsonak berehalako informazioa jasoko du eguneratzea sortzen den bakoitzean.

Halere, beti-beti ez dira erabiltzen CMS editoreak. Egile batzuek webgunea 'HTML-n' konfiguratuta dute eta ez dute tresnarik formatu estandar horiek era automatikoan txertatzeko. Bistakoa denez, kasu horietan programazioa ezinbestekoa da eta, beraz, «HTML/XML lengoaia (etiketen lengoaia)» jakin beharra dago.

«Webgune zaharra» duten enpresek eta profesionalek dinamikoa izatea nahi duten edukia (eguneratuko den edukia) lehen aipaturiko ezaugarriak dituen webguneren batera (hau da, edukiak sindikatu egin daitezkeen webgune batera) desbideratzeko aukera dute. Prozesu hori egiteko programazioan gutxieneko ezagutzak izan behar dira, txertaketa «iturburu-kodean» (lengoaia, HMTL, XML, etab.) egiten delako. Halere, ez dago webgunea aldatu beharrik. Gure «webgune zaharra» mantendu nahi badugu, webgunearen/blogaren kodearen zati txiki bat inportatzeko aukera dugu, eduki dinamikoari estekatzeko.

RSSak txertatzea
"Really Simple Syndication"

EGILEA


Bi aukera ditugu RSSa gure webgunean/blogean konfiguratzeko/txertatzeko: lehenengo aukeran, automatikoki txertatzeko tresna lehenetsiak (widget) dituzten editoreak erabiltzea da. Geroago oinarrizko irizpide batzuk konfiguratzeko aukera ere izango dugu. Bigarren aukera, web-editoreak erabiltzea da. Kasu horretan programazioko ezagutzak behar dira,

Doako plataformak

Eduki-kudeatzaileak

Txantiloien bidez webgunea/bloga erraz-erraz egiteko aukera eskaintzen duten doako sistemak dira. Sistema horietan, txantiloietan oinarrituz hainbat aukera aldatu (pertsonalizatu) ditzakegu: goiburua, enpresaren logotipoa, testuaren koloreak, etab. Aldaketa horiek "gaiaren" irizpideek mugatuko dituzte, hau da, gai guztiek ez digute utziko, adibidez, testuaren kolorea aldatzen.

gehien erabiltzen direnak



CMS editorearen bidez, egileak (editoreak) era guztietako informazioa sortu, sailkatu eta argitaratu ahal du webgunean. CMS datu-base batean oinarritzen da; hala, egileak (editoreak) datu-base hori eguneratu baino ez du egiten, informazio berria erantsita edo aurretik zegoena editatuta.

Web-editoreak

Web-editore profesionalak

Web-orrien editorea HTML edo XHTML dokumentuak sortzeko diseinatutako aplikazioa da.

editore batzuk



Dreamweaver : orriak diseinatzeko tresnarik aurreratuena da. Kodea idatziz edo aldatuz sortzen ditu orriak.


Golive: Azken bertsioaren kalitatea dela-eta, Dreamweaverren lehiakide serioa da.

Komposer: erraz erabiltzen den editorea, doakoa eta Mozilla motorrean oinarritzen dena.

Frontpage: editore erabilerraza, programazioko ezagutza handirik behar ez duena.

RSS gune bat sortzeko bi aukera ditugu

1. aukera: Egileak automatikoki sortzen du aurrez definitutako widgeta, gure blog-plataformatik (joomla, wordpress...). Berriro diogu, hori egiteko ez da programaziorik jakin behar; gure blogean RSS edukitzeko aukera txertatu baino ez dugu egin behar.



widgetak


Ezkerreko menuan (apariencia>widgets>) aukeratu ondoren, gure gunean eskura dauden widget guztiak agertzen dira erdiko eremuan. Gure blogean txertatzeko, eskuinaldera arrastatu behar ditugu. Eremu horretan agertzen da gure bloga. **Hautatu "Enlaces RSS" widgeta, eta edukitzailea eskuineko menura arrastatu.**

widgeten ezaugarriak

Edukitzaile horren parametroak definituko ditugu: Izenburua, **Feed(ak)**[1] **eta formatua**.

(1) “Feed” termino ingelesa da, “web-iturria edo web-kanala” esateko. Web-edukia zabaltzeko bidea da.

2. aukera: Bigarren aukera zera da: egilea "garatzaile" bihurtzea, hau da, web-maketazioak egiteko programa berezia erabiltzea. Kasu horretan, gero gure HTML kodean txertatuko dugun XML kode batekin lan egin behar da. RSS funtzioak nola egiten diren pixka bat luzeago azalduz, esango dugu RSS fitxategia XML lengoaian egiten dela, hau da, gure etiketak nahi dugun moduan egokitzeko etiketatze-sisteman.




Ideia bat izateko, ohiko webgune batean, orain arte sortu ditugun orriak (eta nahi duenak hala egiten jarraituko du), HTML lengoaian programatzen dira. Lengoaia horretan, etiketatzea ezin da mugitu.

Web-editoreek zera egiten dute: beste editore batzuek edo guk geuk egindako XML kodea gure webgunean txertatzen dute, esteka baten bidez. CMSari esker, XML esporta dezakegu eta, hartara, gure webguneko sekzio batzuk egoera dinamikoan (eguneratuta) manten ditzakegu, aski delako gure CMSean edukia kudeatu eta eguneratzea, gure webgunea automatikoki eguneratzeko.

Guk geuk XML kodea sortzeko, etiketak kudeatu eta tratatzeko web-editorea erabiliko dugu. Adibide bat jarriko dugu.

Adibidea. Web-editorea edo ohar-bloka (notepad) erabiliz.

Kasu horretan, eskuz sortuko dugu RSS fitxategia, eta gure argitalpenak webgunean sartu nahi ditugun bakoitzean eguneratu egin beharko dugu. Feed RSS bat egiteko, XML lengoaia erabil dezakegu (eXtensible Markers Language), web-editorea erabiliz. Ondoren, aukera horren bidez, RSS fitxategia sortzeko oinarrizko urratsak aurkeztuko ditugu.



1. URRATSA: Gure XML dokumentuaren bertsioa eta kodetzea zehaztea (<?xml version="1.0" encoding="ISO-8859-1" ?>)

Adibidez Dreamweaver orri-editorea erabiliz gero, XML fitxategi berria sortzen dugunean, berez agertzen dira bertsioa eta kodetzea zehazten dituzten lerroak.

2. URRATSA: RSS estandarra zehaztea (<rss version="2.0">)
Fitxategiko gainerako edukia <rss version="2.0"> eta </rss> etiketen artean egongo da.

3. URRATSA: Feed-aren edo RSS fitxategiaren edukia zehaztea (<channel> eta </channel> etiketen artean egongo da).

Gure webgunearen eta web-argitalpenari buruzko informazio espezifikoa da; eskuarki izenburua, laburpena eta URL helbidea, baina bestelako informazioa ere jaso dezake, hala nola hizkuntza, egilearen izena edo argitalpenaren data. RSS feedek 2 elementu mota dituzte.

Elementu aldagaitzak: : printzipioz eguneratuko ez diren elementuak.

- Webgunearen izenburua (<title> eta </title> etiketen artean)
- Webgunearen URL (<link> eta </link> etiketen artean)
- Webgunearen deskribapena (<description> eta </description> etiketen artean).

Elementu aldagarriak edo itemak: Feedeko elementu dinamikoak dira, hau da, argitalpen berria sortzen dugunean aldatu egingo direnak. <ítem> eta </ítem> etiketen artean egongo dira. Gure RSS fitxategian argitalpen berri bat erantsi nahi dugun bakoitzean, item berri bat sortu behar dugu.

- Argitalpenaren izenburua (<title> eta </title> etiketen artean)
- Argitalpenaren URLa (<link> eta </link> etiketen artean)
- Argitalpenaren deskribapena (<description> eta </description> etiketen artean).

4. URRATSA: Fitxategia gordetzea, RSS edo XML luzapenarekin

5. URRATSA: RSS fitxategia zerbitzarira igotzea / goiburuari estekatzea (gure webguneko <head> eta </head> etiketen artean RSS fitxategia sartuko dugu, honako kode hau sartuta: <LINK REL=”alternate” title=”NOMBRE_DEL_ARCHIVO RSS” HREF=”http://feeds.sitioweb.com” TYPE=”application/rss+xml”>



6. URRATSA: Gure webgunean sortu berri dugun XML edo RSS fitxategirako esteka bat sortzea, RSS ikonoa erabiliz, erabiltzaileek gure argitalpenetako harpidedun egin ahal izateko (ez da nahitaezkoa ikono hori erabiltzea, baina erabiltzaile guztiek horixe ezagutuko dute).

kultura2.0

4. NOLA HARPIDETU RSS BATEAN

Aukeratuko dugun webgune edo blogetan RSS harpidetza egiten badugu, berehala jakingo dugu berrikuntzarik dagoen, webgune horretara joan behar izan gabe. Mezu horiek hainbat bidetatik jaso ditzakegu:

— Posta elektroniko bidez: mezu-programaren «iturriak» karpetan jasoko dugu jakinarazpena.

— Nabigatzailearen bidez: «iturriak» erlaitzean bistaratuko dugu.

— Iturri-biltzaile, baten bidez, kudeaketarako software berezia erabiliz. Kudeatzaile horiek hainbat bidetatik erabil ditzakegu: web-zerbitzuetatik (*Google Reader, My Yahoo!, Bloglines, etab.*), softwarea gure ordenagailuan deskargatuta; FeedReader (*Windows*), NetNewsWire (*Mac*), Liferea (*Linux*), etab.), webgune berezietatik.



Nola jakin webguneak sindikatzeko aukera eskaintzen ote duen



Blog edo webgune batek sindikatzeko aukera duen jakiteko, RSS ikonoa duen begiratuko dugu. Erabiltzaileari harpidedun bihurtzeko aukera uzten dion webgune edo blog baten edukia ikono berezi baten bidez nabarmentzen da, egileak horixe jarriko baitu eguneratzeko aukera duten zatien alboan.

Webguneko eduki guztietan edo soilik zati batzuetan sindikatzeko aukera dago. Azken kasu horretan, gure ustez interesgarrienak diren atalak aukeratu beharko ditugu; adibidez, kultura-aldizkariko webgune batean ikus-entzunezkoen inguruko ataleko oharrak soilik jasotzeko hautua egin dezakegu.

Sindikatzen garenean bi kontu garrantzitsu izan behar ditugu buruan:

- Orokorrean, Interneten argitaratzen den informazioak ez du gutxieneko kalitate-kontrolik edo iragazkirik izaten eta, beraz, ikusiko ditugun datuen fidagarritasuna ez da erabatekoa. Kontu egin behar dugu zer iturritan egingo dugun harpidetza (nork argitaratzen duen, askotan eguneratzen ote den, etab.).

- Sindikatzeko aukera ematen duten lekuak hainbeste izanik, ohar gehiegi ere jasotzeko arriskua dugu, eta hori ez da komenigarria, denbora gehiegi beharko baitugu berrikuntza horiek guztiak irakurtzeko. Zentzu horretan, informazio eta ezagutza gehien eman diezaguketen iturriak ondo hautatzea gomendatzen dugu.

Azkenik, berriz esango dugu gehien interesatzen zaizkigun webguneetan sindikatuz gero, denbora asko aurreztuko dugula nabigatzen eta informazioa bilatzen. Gainera, harpidetu garen webguneak interesa galduz gero, oso erraza da baja ematea.

OINARRIZKO Wikipedia

Biltzailea (albiste-biltzailea edo RSS-irakurlea). Software mota bat da, erabiltzaileari RSS, Atom edo XML/RDFren beste formatu-deribatu batzuk erabiltzen dituzten iturrietan harpidetzeko aukera ematen diona. Biltzaileak aukeratu ditugun webguneetan argitaratutako albisteak edo testuak biltzen ditu, eta web-iturri horietan izan diren berrikuntzak eta aldaketak erakusten dizkigu. Hau da, azkenengoz irakurri genituenetik, zer webgune aldatu diren jakinarazi, eta aldaketa hori zertan den erakusten digu. Informazio horri web-iturria deitzen zaio.

Feed edo RSS kanala: webgune batzuek (atariak, weblogak, albiste-egunkariak, etab.) sortzen duten fitxategia da, webgune horretan argitaratutako informazioaren bertsio espezifikoa jasotzen duena.

RSS Really Simple Syndication termino ingelesaren siglak dira. Webeko edukia sindikatu edo partekatzeko XML formatua da. Eduki-iturrian harpidedun egin diren erabiltzaileei askotan eguneratzen den informazioa helarazteko erabiltzen da.

Widget: aplikazio edo programa txiki bat da, eskuarki fitxategi txikietan aurkezten dena, eta widget-motor batek (Widget Engine) exekutatzen duena. Askotan erabiltzen diren funtzioetara erraz iristeko aukera eskaintzea eta ikus-informazioa eskaintzea dira beraren helburuetako batzuk.

Berehalako informazioa

http://www.rss.nom.es
http://www.youtube.com/watch?v=t5m5lKx6rEo
http://www.youtube.com/watch?v=DQ_UL-5rYXQ&feature=player_embedded
http://loretahur.wikispaces.com/Web+2.0#toc1